

Hernaniko txalaparta eskolaren 11 ikasurte

(11 courses in the Hernani Txalaparta School)

Beltran Argiñena, Juan Mari

Herri Musikaren Txokoa. Tornola kalea, 6. 20180 Oiartzun

BIBLID [1137-859X (2007), 9; 151–172]

Jaso: 05.11.18

Onartu: 07.03.21

Txalapartak azkeneko garaian emandako bilakaeran eta gaur egun bizi duen egoeran Hernaniko Txalaparta Eskolak eragin nabarmena izan duela uste dugu. Ikasle asko pasa dira eskolatik, batzuk hastapeneko mailarekin nahiko izan dute, beste batzuk ikasten jarraitu dute eta batzuk beste eskoletan txalaparta irakasleak dira. Guztiek eta bereziki azken hauek parte zuzena hartu dute Hernaniko Eskolan txalaparta jotzeko osatu den erritmo eta joko erreperatorioan edo ikasteko egitarau orokorrean.

Giltza-Hitzak: Txalaparta. Txalaparta festa. Herri musika. Musika eskola. Soinu-tresna. Euskal musika.

En nuestra opinión, la Escuela de Txalaparta de Hernani ha tenido una influencia notable en la transformación que ha vivido la txalaparta en los últimos tiempos y en su situación actual. Por la escuela han pasado muchos alumnos, algunos de ellos han tenido suficiente con el nivel inicial, otros han continuado aprendiendo y algunos son profesores de txalaparta en otras escuelas. Todos ellos y de una manera especial esots últimos han tenido una participación directa en el repertorio de ritmos y técnicas de txalaparta desarrollado en la Escuela de Txalaparta de Hernani o en su programa general de estudios.

Palabras Clave: Txalaparta. Fiesta de txalaparta. Música popular. Escuela de música. Instrumento musical. Música vasca.

Onze cours de l'Ecole de txalaparta de Hernani ont eu une influence notable sur la transformation vécue par la txalaparta ces derniers temps et sur sa situation actuelle. De nombreux élèves ont passé par cette école. Quelques-uns d'entre eux se sont contentés d'avoir le niveau initial. D'autres ont continué d'apprendre et certains d'entre eux sont professeurs de txalaparta dans d'autres écoles. Tous, et spécialement ces derniers, ont participé directement au répertoire de rythmes et de techniques de la txalaparta développé à l'Ecole de Txalaparta de Hernani ou dans son programme général d'études.

Mots Clés: Txalaparta. Fête de txalaparta. Musique populaire. Ecole de musique. Instrument musical. Musique basque.

SARRERA-LURRA

Orri honen aurrean aurkitu naizenean nahiz mila bueltak emana izan, lur zati txiki-handi baten aurrean aurkituko balitz bezala nago, ez dakit nondik hasi luma gidatzen. Batera kolpatzen zaizkit garai bateko eta egungo gogoetak, garai bateko asmoak eta egungo garapenak, garai bateko ilusioak eta egungo errealitateak, azken finean 10/12 urteok eta bidean emandako urratsak gaur garena edo/eta zaretena izatea iritsi artekoak.

Euskal ohiturari jarraiki, ez dakit ez ote den hobe kontu kontari hastea eta erditze hura, jaiotze hura, tradizioak agintzen duen bezala ahoz kontatzea besterik gabe baina, egia da beste mundu batean, mundu “moderno» deitzen den honetan bizi garela eta txalaparta ere eskolan ikasten den moduan, ordenagailuak ditugu eta honetan idatzi behar gure historia, kasu honetan oso txikia baina baita ere oso garrantzitsua eta emankorra izan den historia hau eta, niri dagokidan, sorrera nola izan zen kontatzea.

Sarreran eta lehenik egin nahi nukeena zera da, luma emankorra izan dadin zer ikusi handia izan dutenak esker, hala nola Joan Mari Beltran, maisu eta adiskidea, lankidea eta kolaboratzaile prestua izan den udaletxeko langilea Jaxinto Fernandorena eta garai hartan zinegotziak eta alkate ziren Rikardo Mendiola eta Agustin Ezponda, eta ezin ahaztu ere Musika eskolako gainontzeko irakasleak, Guzti hauek eskaini baitzuten beraien apoioa eta laguntza proiektua martxan jartzerakoan.

Eta hauek bezain garrantzitsuak izan diren, urtez urte, ikasten eta lanean ari-tu diren ikasle guztiak bestela ez baitzen ahal izango egun duguna: TXALAPARTA ESKOLA eta txalaparta inguruan festa eta Txalapartarekiko ikerketa gunezoragari hau.

Horrelakoxea da luma, bera maitatzen badugu, zaintzen badugu, landatzen badugu, emaitza eta fruitu ederrak ematen baititu.

LANDATZE LANAK

1983an hasi zen Eskola sortuko zeneko legegintzaldi berna udaletxean. Orduan genituen helburuen artean Kultura arloan bultzada bat ematea eta suspertzea zen eta besteak beste musika atalari behar zuen eta merezi zuen lekua eman nahi genion.

Artean eta urte luzez lanean borondate onez baina oso medio eta baldintza eskasetan solfeoa eta txistua irakasten hainbat lagun anitzen ziren udaletxean: Sagarna, Insausti, Bergara edo Iruretagoiena Jauna.

1. Koro Etxeberria, 1985ean Hernaniko Udaletxeko kultur zinegotzia

Eskola sortu nahi genuen. Kontserbatorio bat. Musika Heziketa. Musika irakatsi behar zen. Baina ze eskola mota behar zen? Ze proiektzioko eskola? Ze helbururekin martxan ipini nahi genuen horrelako ekimen bat.

Egia esan ez genekien ezer askorik baina zenbait gauza oso garbi geneuzkan eta lehen urratsak ematen hasi ginen, proiektua lantzen, kontaktuak egiten,... pixkana pixkana hazia ereiten lur zati hartan nahi genituen lan emaitzak lortu ahal izateko.

Kalitatezko eskola bat nahi genuen, formakuntza erregelatuaren barne zegoen eskola bat, baldintza txukunetan arituko zena, irakasleak lan baldintza normaletan, edozein herritarren eskueran egongo zen eskola bat, musika eta musikan heziko zuen eskola, zaletasuna eta sorkuntza piztuko zuen eskola, eta guzti horretarako behar ziren baliabide ekonomikoak ere kontutan hartu behar ziren udaletxetik eta beste erakundeetatik.

Eta hortxe garbi entzuten genuen antzinako hotsa, Euskal Herrian, erromeria eta festa, ohiturak eta folklorea anitza eta aberatsa da eta herna sentimendu eta objetibitate horretan, beste edozein tresna bezain garbi edo garbiago azaltzen zitzaigun hain maitatua dugun Txalaparta. Berau zabaltzea, gozatzea, irakastea eta ikastea eta era berean herria egiten jarraitu behar zen, gure obligazioa zen behintzat guk/nik hala sentitzen nuen.

Eta horrela planteatu zen trikitixa, alboka eta beste zenbait euskal musika tresnekin batena, txalaparta presente eta suspertzea ezin bestekoa zela. Gureari eutsi behar geniola eta zuen balorea berreskuratu ere, ez zela/zirela soilik baserritar edo antzinako herritarrentzat egindakoa, egungo kale bizitza honetara ere egokitzen eta egoki zitezkeela, esperimentatzeko, ikertzeko eta sortzeko ere bai.

Eta guzti hau kontutan harturik 1984eko Uztailaren 19an Herri Batasunak Kultura Batzordean Musika programa globala eta oinarrizko plana aurkeztu zuen. Eta horrelaxe hasi zen lehen urratsak ematen.

Hasi orduko topatu genituen lehen zailtasunak; beste inon (erakunde ofizialetan bederen) ez zen horrelako eskolarik ezagutzen, pianoa, klarinetea, edo... beste tresnak bai baina euskal tresnak, txalaparta eta hori, inon ez eta bestetik garai hartan horrelako ekimenetarako erakundeetatik ematen ziren diru laguntzen artean atal hau ez zen kontenplatzen. Harrigarria baina horrela zen.

Hala ere aurrera egitea erabaki genuen eta Donostiako kontserbatoriora zuzendu ere ginen (Jaxinto eta biok) eta bertako zuzendariarekin hitz egin, uste dut orduan Elizondo Jauna zela, eta kontatu ondoren berehala zera erantzun zigun: «Zuek egin nahi duzuen horretarako oso aproposa den pertsona bat bada, Joan Mari Beltran, hitz egin berarekin».

Bitarte honetan jada musika eskola, orduan akademia izenarekin, martxan hasi zen, lehen irakaslea, piano eta solfeo irakaslea kontratatatu zen 1984ko Irailaren 25an eskola abiatu da.

Jakingarri modura beste hau ere kontatuko dut. Garai horien inguruan ere eta artxiboan begiratzuz aurkitu dut 1984eko otsailaren 18an antolatutako euskal musika tresnen jaialdi bat burutu zen. Ez dut datu gehiagorik aurkitu baino bai txalaparta, dultzaineroak eta txistulariak parte hartu zutela eta 54.000 ptako aurrekontua izan zela ere. Eta sasoi berdinean Epelarre eta Astisaran, Tapia eta Leturia, eta Joan Mari Beltran berak gure kaleetan zehar igande arratsaldeak trikitixa eta dultzainaz kaleak doinu alaiez betetzen zizkigutela. Zaletasuna nonbait betidanik egon da.

Eta berriro harira bueltatuz Joan Marirengana jo nuen. Uste dut Bulebarreko kafetegi batean zitatu ginela, orduan Joan Mari enpresa pribatu bateko delineante edo perito zen baina dagoeneko musika zuen gogoko.

Zer esan, Juan Marik entzun zuenean, gauza hauek ez daude ez aktetan ez inongo ordenagailuko artxiboetan gordeta, salbu norberaren buruan eta sentsazio eta hunkipenetan, baina uste dut esan nezakeela ideia gustatu egin zitzaioela, eta berehala hasi zen ideiak eta asmoak azaltzen, eta hitz egiten zuen aldiro bere ahotik,... bueno ezagutzen duzue ezta? bere hitzak txalapartaren makilakadak edo albokaren notak ziruditen.

Beraz ni pozik eta bera ez gutxiago. Animatu eta aurrera. Oposizioak prestatu 1985eko Ekainaren 13an erabaki zen kultura batzordean Solfeorako, eskusoinurako, haizezko tresna eta euskal musika tresnetarako irakasleak kontratatzea eta Irailaren 2 eta 3 datak seinalatzen dira azterketa egunak. Baldintzen artean noski euskara jakitea. Oposizioak gairatu eta berehala kontratatu zen Joan Mari, beste lau irakasleekin batera 1985eko Urriaren 1an hain zuzen, beraz, 1985-86 ikasturtean hasten da Txalaparta eskola martxan.

EMAITZAK

Ereina zegoen hazia. Landarea eta muskil berriak ere martxan ziren baina zuhaitz indartsua osatu behar genuen. Horrela bada, matrikula zabaltzen eta lehen ikasleak hasi ziren. Txistuan: 12 lagun, Txalapartan 7; Dultzainan; 2 eta Albokan 1 (azken hiru tresna hauetan denak helduak gazteenak 15 urte zituen). Eta horrelaxe beste misteriorik gabe hasi zen martxan Txalaparta Eskola Hernaniko musika eskolaren barne.

Geroztik hazten doa, «txalaparta» osatuz doa. Taldeak sortu dira, txalapartariak jaio dira, ikerketa interesgarri eta berrikuntza aberatsak egin dira, txalaparta festa zoragarria antolatzen da, urtez urte gero eta errotuago dagoelarik herri honetan, gero eta konplizeagoak sentitzen garelarik herritarrok egur enbor hots horiekin, eta gorputz osoa astintzen zaigu edozein ekitalditan txalaparta entzuterakoan.

Gero eta gehiago dira zuhaitz zahar horretatik sortu diren adaska berriak, inoiz baino garbiago dago bizitza luzea izango duela Txalapartak eta zaigula, luzaroan behintzat, enborrik faltako.

Zorionak guzti hau posible egin duzuenoi eta mila esker uzten duzuen/diguzuen gure lurrean hazitako zuhaitz mardul zoragarri honengatik.

KORO ETXEBERRIA (1985ean Hernaniko Kultur Zinegotzi burua)
Hernani, 1996eko Maiatzak 16a.



Koro Etxeberria eta J. M. Beltran Argiñena. 10. Txalaparta Festa. Hernani, 1996-05-16. (arg. H. Txalaparta Eskola).

1. SARRERA

Txalapartak azkeneko garaian egin duen bidean, emandako bilakaeran eta gaur egun bizi duen egoeran Hernaniko Txalaparta Eskola honek 11 ikasturte hauetan eragin nabarmena izan duela uste dugu. Horregatik eta hori kontuan harturik, “X. Txalaparta Festa”ren egitaraua osatzerakoan, gure Txalaparta Eskolaren urte hauetako historia plazaratzea eta emaitzaren balantzea egitea komenigarria zela iruditu zitzaigun.

Ikasle asko pasa dira gure txalaparta erakusteko gelatik, batzuk hastapeneko mailarekin nahiko izan zuten, hau da, gure aurreko txalapartari zaharrek jotzerakoan erabiltzen zuten jokoekin eta hori ikasita eskola utzi zuten. Beste batzuk ikasten jarraitu zuten eta jarraitzen dute eta horietako batzuk beste eskoletan txalaparta irakasleak dira gaur egun. Guztiek eta bereziki azken hauek parte

zuzena hartu dute Hernaniko Eskolan txalaparta jotzeko osatu den erritmo eta joko erreperatorioan edo ikasteko egitarau orokorrean.

Baina Hernaniko Txalaparta Eskolaren artezketarekin hasi aurretik egin dezagun hau sortu arte Txalapartak egin duen ibilbidearen aipamen labur bat.

2. TXALAPARTAREN AZKEN GARAIETAKO URRATSAK

Garbi dago euskal kulturaren eta bereziki euskal musika alorrean, txalaparta-ren presentzia eta egoera erabat aldatu dela mila bederatziehuneko hirurogeigarren hamarkadaz geroztik. Aldaketa nabarmen hau ez da eman, noski, bat batean eta are gutxiago besterik gabe, berez, mirakulu baten gisa.

Aldaketa hori benetan ez da aldaketa bakarra izan baizik eta txalaparta eta txalapartarien modu eta arlo ezberdinetan emandako aldaketak dira:

- Txalapartarien kopurua.
- Txalapartaren lurraldetasun zabalkundea.
- Txalapartaren erabilpenaren eta funtzio sozialarenaren zabalkundea.
- Txalapartaren itxura eta erabilitako materialen aldaketak.
- Txalaparta jotzeko teknika, errekurtsio eta erritmo jokoen berrikuntzak.
- Txalapartaren erabilpen eta funtzio musikaren zabalkundea.

Guk ikusten dugunez aldaketa horiek, nagusiki hiru urrats edo etapetan eman dira.

2.1. Lehenengoa. Mila bederatziehuneko hirurogeigarren hamarkadan

Euskal Arte Eskola.
Artze anaiak, Beltran anaiak.
Bi belaunaldien arteko harremanak.
Bi mundu ezberdinen arteko erlazioa.
Txalapartaren musika, inguru eta funtzio aldaketa.
Prestakuntzarako eta jotze dedikazio mailaren gorakada.

Garai hartan, eta bereziki Jorge Oteizak bultzaturik eta zuzendurik Euskal Arte Eskola osatu zen. Honen barnean, mota guztietako euskal artista talde desberdinak elkartu eta koordinatu ziren, ala nola, eskultura, margolaritza, antzerkia, musika eta dantzakoak. “Ez dok hamairu” musika-kantu taldea eta “Argia” euskal dantza taldea ziren horren barnean aritzen ziren taldeetako bi.

Jorge Oteizak, Lasarteko Zuaznabar anaiek jo zutelarik, Txalaparta ezagutu zuenean, soinu-tresna honetaz biziki interesatu zen eta horri jarraipena eman behar zitzaiola proposatu zuen. Berarekin Euskal Arte Eskolan zebilen Joxan Artze poeta interesatu eta animatu zen. Orduan, Joxan Artzek eta bere anai Jexusek txalaparta ikasteko eta jotzeko bidea Lasarteko Saustako bidea hartu zuten. Bertan Zuaznabar anaiekin txalapartaren ikasketaren hastapena egin zuten.

Berehala Euskal Arte Eskola barnean koordinaturik zebilen Argia Euskal Dantza Taldeko Beltran anai musikariok beste bikote osatuz aurreko bikotearekin elkartu ginen. Denbora luzean, lauok elkarturik entsaiatzen genuen Artze anaiek Usurbilen zeukaten harategiko barnealdean. Geroago, nahiz eta harremanak mantendu eta zenbait talde lanak landu, bikote bakoitzak bere aldetik jarraitu zuen. Handik urte gutxietara Erbetegi Etxeberriko Ramon Goikoetxearekin txalaparta jotzen ikasten aritu ginen eta tarteka bere anai Asentsiorekin ere bai.

Txalapartari zahar haiek dena erakusteko prest azaldu ziren, beti txalapartaren alde, soinu-tresna eta bere musika honek jarraipena izan zezala nahi zuten eta. Beste aldetik txalaparta ezagutu zuten gazte horiek harriturik eta liluraturik zeunden entzuten zutenarekin eta ikasteko grina handiz ekin zioten ikasteari. Horrexegatik bi alde eta belaunaldien arteko harremanak oso onak izan ziren. Txalapartari zaharrek erakutsi ziguten nola jotzen zen, zeinek, noiz, non eta zertarako. Baita tresna honen musika nolakoa zen, nola egin eta gozatu berarekin eta guzti horietaz gain beraientzat txalapartak zuen garrantzia baloratzen eta txalaparta maitatzen ere.



Ramon Goikoetxea eta J. M. Beltran Argiñena.
Hernani, 1995. (arg. H. Txalaparta Eskola).

Txalapartari zaharrek ikasi eta gero, Artze anaiek “Ez dok amairu” taldearen emanaldien bitartez eta Beltran anaiek “Argia” taldeak eskainitako saioen bitartez, soinu-tresna hau Euskal Herri zehar azaldu zuten. Talde hauetako ehunka emanaldi horietan Txalaparta beti agertzen zen eta ez dugu ahaztu behar garai horretan toki eta okasio askotan euskal soinu-tresnen emanaldi-erakustaldiak

antolatzen zirela eta ordutatik aurrera guzti hauetan Txalaparta ere presente egoten zela txalapartari zahar edo eta gazteak jota.

Euskal nortasun edo identitatearen bila eta finkatze alde zebilen giro, inguru eta egoera horretan txalapartak harrera oso ona izan zuen. Berehala jende askok ikasteko gogoazaldu zuen eta txalapartari berri hauek hamaika ikastaro eman zituzten edozein kultur elkarteak antolaturik, txalapartari kopurua handituz.

Orduan eman zuen txalapartak aldaketa nagusienetako bat, hau da, inguru edo testuinguru aldaketa. Baserritar inguruko ospakizun sozial eta auzolanetako festetatik kaleko ekitaldietara salto egin zuen; kaleko festak, musika emanaldiak, euskal folklore ikuskizunak,...

Beste berritasun garrantzitsua joleagoaren artean emakumezkoen agerpena izan zen. Ordura arte gizonezkoak bakarrik ezagutzen bagenituen txalapartari gisa, aro berri honen hasieratik emakumezkoak gizonezko bezain ugariak dira.

Ordukoak dira txalapartarien aurreneko bilketak eta adibide gisa balio duena gogoan dut horietako bat. Aralarren, San Migelen Zuaznabar anaiei egindako omenaldia izan zen (1965?). Oso berezia izan zen batzar hartan txalapartari zaharrekin batera zenbait txalapartari berriek egindako txalaparta talde saioa. Han jarri ziren lau txalaparta, zirkuluaren lau puntu kardinalen gisa, oholak zentroari zuzenduak eta han aritu ginen txalapartari bikote guztiak jotzen. Baita ere nahasturik era honetan: Bikote bat hasi Txalaparta batean, bikote honetako bat isildu eta aldameneko Txalapartan beste bat erreleboa hartuz, gero aurreneko txalapartan jotzen zegoena isilduz eta bigarren Txalapartan beste batek jotzen hasi eta era horretan, zirkulu osoa bete arte.

Garai hartakoa da ere Donostiako Trinitateko plazan egindako lehen (eta bakarra, nik dakidanez) txalapartarien txapelketa.

Txalaparta inguruan sortu zen mugimendu berri honek hasieratik garbi erakutsi zuen bere helburua ez zela bakarrik tresna hau ezagutu eta bere horretan, errelikia hutsa balitz bezala mantendu baizik eta inguru berrian eta garaikoei baliagarri izan zitekeela ikusiz, berigunez baina era berean jarrera berritzaile eta biziaz ekin zion txalaparta erabiltzeari. Horrexegatik, berehala aldaketa desberdinak sortu ziren.

Txalaparta osatzeko erabilitako material aldetik berehala mugak hautsi eta ohol bat izatetik bi, hiru eta lau izatera pasatu zen. Ohol azpikoa ere aldatu zen. Ohola jotzeko altura erosoan jartzeko hanka edo soportetako erabilitako saskiak, otarrak, aulkiak edo kaxak, zurezko eta metalezko erosoago eta praktikoago ziren hanka sofistikatuagoengatik ordezkatuak izan ziren. Honekin bi behar bete ziren, alde batetik oholak altuago eta jotzeko jarrera erosoagoan jartzea eta bestetik ohol gehiago erabiltze horrek zekarren soporte zabalagoarena. Hanka eta ohol artean, azken hau isolatzeko hots bibrazioak ondo eman zitzaizkien erabilitako maizorria, zaku edo belar lehorra izatetik larruzko uhalak eta gomaespuma izatera aldatu zen.

Hots berri bilaketak bertako egurrak erabiltzeaz gain, kanpokoak erabiltzera eraman gintuen.

Garai hartakoa da ere orain aipatuko dugun anekdota. 1968. urte inguruan, Usurbilgo festetan, gau batean, berbena bukatu eta gero, plazan jende asko “martxa” gogoarekin zegoelarik, Joxan Artze eta biok, oholen ordezkarraren bidok hutsik eta makilen ordezkari botilatxoak harturik eman genuen txalaparta emanaldi luze hura. Garbi gelditu zen orduan Txalaparta ez dela bakarrik “egur hotsa”, baizik eta musika egiteko modu bat.

Joera aldetik, eta arrazoi desberdinengatik (Txalapartarien kopurua, hauen jatorria, helburua, izaera eta formazioa, prestakuntzarako sartutako orduak, irte-naldi edo emanaldi ugartasuna,.....) aldaketa nabarmenak eman ziren. Zaharre-ri ikasitakoan oinarriturik baina garaturik eta konplexutasun handiago lortuz.

Ezin dugu atal hau bukatu esan gabe beste txalapartari gazte ere aritu zirela txalapartak egin zuen bide hartan. Hasteko, txalapartari zaharren familietako senide gazteak, txalapartaren aldeko hauen jarrera aipatzeko modukoa baita. Sekulan ez zuten inongo eskusibismoa agertu, inoiz ez zuten oztoporik jarri eta beti erraztasun guztiak eman zizkiguten beraien zaharregana ikastera joaten ginenei. Beste adibide bat, Lasarteko Santa Barbara Elkarteak. Bertan, bereziki euskal kulturen alde horrenbeste egin duen Juantxo Arteagak bultzaturik (honek egin zizkigun lehenengo hiru oholetako hanka-soporte berriak), urte luzeetan Txalaparta bat prest egoten baitzen nahi zutenek jo zezaten, eta zaharrei zuzenean edota berriei ikasitako txalapartari gazte abar luze bat.

2.2. Bigarrena. 1970-1985

Ikastaroak

Zabalkundea Gipuzkoan, Bizkaian, Araban,...

Musikari eta taldeen txalaparta erabilpena: Mikel Laboa, Luis de Pablo, Tomas Garbizuren Herri meza, Oskorri...

Urte hauetan Txalaparta erabat finkatzen da. Ikastaroen antolaketa ugaritzen da eta txalapartari talde berri asko sortzen dira Euskal Herri osoan. Batzuetan entzun, ezagutu eta beste laguntzarik gabe zenbaitek zuzenean bere kasa ekiten diote Txalaparta jotzeari.

Txalapartarien kopurua ugaritzen da eta ordura arte txalapartarien lurralde nagusia eta ia bakarra Gipuzkoa izan bazen ere, ordutik aurrera Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Iparraldean bertako txalapartariak aritzen dira.

Txalaparta non nahi entzuten da, lehenago esan dugun bezala txalapartaren erabilera asko zabaltzen baitzen aurreko etapa horretan eta oraingo honetan gehiago zabaltzen da. Musika eta euskal folklore emanaldietan gain non nahi eta noiz nahi entzuten da; ezkontzetan eta hileta ekitaldi askotan, baita mota askotako inaugurazioa, omenaldi, ongi etorri eta ospakizun kultural edo politikoetan txalaparta nahi eta nahiezkoa bihurtzen da.

Musika konposatzaile batzuk ere interesatzen dira Txalapartaz eta horren lekuko hor dugu Tomas Garbizuk konposatutako “Herri Meza” edota Luis de Pabloren “Zurezko Olerkia” (1975). Oskorri taldeak ere txalaparta erabiltzen zuen bere emanaldietan perkusio eta erritmo soinu-tresna bezala. Mikel Laboak beti erabiltzen zuen tresna hau ematen zituen kantaldietako zenbait kantutan lagungarritzat.

Bestalde, musika egiteko joera edo modu aldetik aldaketa batzuek ematen dira. Ttakuna, herrena eta hutsunea bakarrik erabiltzeaz gain, tukutuna (hiru kolpeko multzoa, Kirikoketan, toberan eta Goikotxeatarrek base erritmikoa ematen dioten “tukutuna” deituraren arabera tradizioz erabiliak izan zirenak) erabiltzen da.

Abiadura aldaketak gero eta nabarmenagoak dira, bai azkartze eta lasaitzea, erritmo malguagoa eta aldakorrago emanez. Era berean, hotsaren intentsitatearekin gero eta joko eta aldaketa gehiago egiten dira.

Politonalitate eta polikromialdetik aurreko etapan ohol gehiago jartzearekin lortutako aukera zabaltasuna areagotzen da toki ezberdinetan kolpe bat bi makilekin batera ematearekin. Nahasketa horrek tonu eta tinbre efektu eta sentsazio berriak sortzen ditu.

Garai horretan joera erritmikoetan joko berriak agertzen dira. Ttakun eta tukutunaren zabalera aldaketak (itxiago-zabalago) buelta (konpas) bakoitzean bere barruan lortzen duen aldaketetatik gain, bi berrikuntza nabarmenak dakarkit.

Bat, “lauko”arena; bi txalapartariak txakunak eginik (bueltan lau kolpe jotzen) kolpe guztien arteko tartea berdina eginez erritmo izaera aldaketa sortzen da. Horren eraginez bueltaren pultsazio nagusia azkeneko kolpean egotetik (ttakun ttan ttakunean eta tukutunean) lehenengo kolpera pasatzen da. Hau, txalapartari zaharrek joaldiaren bukaera aldean azkar jotzerakoan askotan egiten zutena eta Migel Zuazbarrek “laukoa” izendatzen zuena.

Bigarrena, “hiruko” erritmoa. Txalapartari zaharrek azkar jotzen zutenean, batzuetan, batek ez bazuen ttakuna ixten behar zen haina eta bueltaren erdia baino gehiago betetzen bazuen (hirutik bi), besteak itxi behar zuen ez nahasteko (hirutik bat), horrela, hiruko buelta entzuten zen. Hori txalapartari zaharren joaldietan noizbehinka eta puska motzetan entzuten bada (ez dakigu nahita edo nahi gabe egiten zuten ere), guk, joko berri gisa hartzen dugu, zati handi edo saio osoetan erabiliz.

Ikusten den bezala, hau guztiak ez zuen suposatu hutsetik sortutako inongo berrikuntza, baizik eta txalapartari zaharrek egiten zuenaren joeran oinarriturik, (Hotsa intentsitatea, abiadura, hots ezberdinen jokoak, eta ttakuna-tukutunen zabalera) txalapartari berriek egindako lanaren ondorioz emandako edo lortutako garapena.

2.3. Hirugarrena. 1985-gaur egun arte

Txalapartak jarraitzen du bere martxan, txalapartarien kopurua ugaria da, lortutako maila eta funtzio zabala mantenduz.

Lehenago aipatu dugun bezala txalapartari berriek hasieratik jarrera ireki eta berritzailea agertzen dute. Ez da nahiko zaharrek erakutsitakoa errepikatzea, eta Txalaparta eta bere erabilera orokorrean aldaketak edo hobeto esanda berrikuntza nabarmenak gauzatzen dira.

Txalapartari batzuk zeregin horretan saiatzen dira. Hor dugu esate baterako oholekin batera eta nahasturik "Tobera" jotzeko palankak erabiltzea eta geroago Arabako Gerla Beti txalapartari taldeak sortutako harrizko txalaparta eta geroago beste txalapartariak oholekin eta palankekin nahasturik erabilitako txalaparta.

Joera, erabilpen eta erakusteko metodologia aldetik ere berrikuntza bila saiatzen dira. Bide eta denbora horretan Hernaniko Txalaparta Eskolak garrantzi eta eragin handia izan duela uste dugu eta orain hori guztia aztertzen saiatuko gara.

Hasi aurretik garbi esan behar dugu Hernaniko Txalaparta Eskolaren lorpenak neurri ezberdinetan eskolan aritutako guztien arteko ekarpenen ondorioaz lortu direla. Baita ere, eta Eskola honek hasieratik jarrera zabala izan duenez (bai barrutik kanpora eta kanpotik barrura) beste txalapartariak egiten zutena ere kontuan hartu duela, beste modu batera esan da, eraginak bi norabideak izan ditu; Eskolatik beste txalapartariengan eta hauetatik Txalaparta Eskolarengan.



J. M. Beltran – Jexus Artze. 1. Txalaparta Festa. Hernani 1987 (arg. H. Txalaparta Eskola).

Ezin dugu ahaztu esate baterako garai horretan Jexux Artze eta biok bere Usurbilgo baratzako txabolan, denbora luzean, astero, joerak eta berrikuntzak jorratzen egiten genituen saioak.

3. HERNANIKO TXALAPARTA ESKOLA

Hernaniko Udaletxeak zabaldu nahi zuen Musika Kontserbatorio berrian, besteekin batera, euskal soinu-tresnak ikasteko aukera eskaini nahi izan zuen. Garai honen hasieran, halako musika ikastetxeetan onartua zegoen euskal soinu-tresna bakarra txistua zen eta honekin batera Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txalaparta ikasteko eskaintza eman nahi izan zuen.

1984. urtean jarri zen martxan Musika Ikastetxe hau. 1984-85 ikasturtean bi irakasle kontratatu zituen, Solfeoa eta Pianoa erakusteko. 1985-86 ikasturterako horrez gain Akordeoi, Saxofoia, Trikitixa irakasle bat eta Alboka, Dultzaina, Txalaparta eta Txistu erakusteko beste irakasle bat.

Hau dela eta zalantzarik gabe esan dezakegu Hernani izan dela Alboka, Trikitixa eta Txalaparta ikasteko aukera eman duen Euskal Herriko lehen musika ikastetxea. Urte batzuek beranduago "LOGSE" ezarpenarekin soinu-tresna hauen irakaskuntza maila batean (irakasleagoaren abilitazioekin) legeztatuak izan dira, baina bitartean Hernaniko Musika Kontserbatorioan inongo subentzio, laguntza eta errekonozimendu ofizialik gabe, emaitza ugari eman duen bidea egin da.

Arlo guztietan oso garrantzitsua izan zen Hernaniko musika ikastetxeak ematen zuen aukera. Ordura arte, Nafarroako gaiteroen salbuespenekin, soinu-tresna hauek ikasteko posibilitate bakarrak, noizbehinka eta iraupen ezberdinekin (gehienetan oso motzak), jole-irakasle eta ikasleen artean, laguntza txiki edo gabe antolatutako ikastaroak izaten ziren. Ondo dakigu zein baldintza eskasetan (iraunkortasuna, lokalen egoerak, ordutegiak, materiala, diru laguntzak, metodologia,...) funtzionatzen ginen. Hernaniko Musika Kontserbatorioak, neurri handi batean hori guztia normalizatu egin zuen:

- Ikastaroen iraupena. Ikasturte osoa.
- Iraunkortasuna. Urtero eta hutsik gabeko eskaintza.
- Gutxienezko baldintzak betetzen zituzten lokalak.
- Ordutegi finkoa.
- Ikasteko behar zen materiala.
- Irakasleagoaren ordainketa.
- Metodologia. Aurreko baldintza betetze horrek metodologi egoki bat osatzeko aukera eman zuen.
- Guzti honek sortu zuen ikasbidearen ordenazioa, progresioa eta lanerako bide sistematizatu.

Orain, beste soinu-tresnen gorabeherak alde batera utzi (hau ez baita horretarako momentua) eta zuzen zuzenean txalaparta jorratuko dugu eta konkretuki Hernaniko Txalaparta eskolan gertatutakoa.

4. ERAKUSTEKO - IKASTEKO TXALAPARTA ESKOLAREN FUNTZIONAMENDUA

Sortu zenetik Alboka, Dultzaina eta Txistuarekin batera, Txalapartak gela ego-ki bat izan zuen Hernaniko Musika Ikastetxean.

Bertan klaseak eman ahal izateko eta ikasleek erabiltzeko lau oholetako txalaparta oso bat jarri zen.

Beste soinu-tresnetan bezala, klaseak astean behin eta ikasurte osoan ematen dira (urria hasieratik ekaina bukaera arte).

Klaseen iraupena eta irakasleak ikasleari eskaintzen dion denbora dedikazioa hiru motatakoa izan dira.

Hasieran, 40 minutu ikasle bakoitzeko. Gehienetan binaka ematen zirenez, astean 80 minutuko klasea hartzen du ikasle bakoitzak.

1993-94 ikasturtean LOGSE legearen ezarpenarekin eta Musika Kontserbatorio izatetik Musika Eskolara izatera bihurtzen danean irakasleak ikasle bakoitzari eskainitako denbora dedikazioa 30 minutura murrizten da.

1995-96 ikasturtean Hernaniko Udaletxeak irakasle dedikazio zabaltzeko aukera ematen ez zuela eta urtero ikasle-gai asko kanpoan gelditzen zirela ikusirik, alde eta kontrakoak aztertu ondoren ikasle baten 30 minutu horietan bi ikasle (bikote bat) sartzea erabaki zen. Ordutik aurrera klaseak ordu betekoak eta launaka edo bi bikoteka ematen dira.

Egitaraua halako klase indibidualizatueta eman izan da eta 1988-89 ikasurteetik aurrera ikasteko Txalaparta Eskolako egitaraua bukatzen zuten ikasleri txalaparta jotzeko teknika, joera eta musika elkarri landu zezaten talde klasea



Hernaniko Txalaparta Eskolako Javi Morcillo eta Karlos Torres ikasleak (1. Txalaparta Festa. 1987) (arg. H. Txalaparta Eskola).

ematen hasi ginen. Hasieran bi astean behin eta geroago astero. Talde honetan jorratu eta garatzen dira urte hauetan sortutako berrikuntza guztiak.

5. IKASTAROEN EGITARUA

Erakusten denaren egitarua bi mailetan banatua dago.

1. Txalapartari zaharrek jotzen zutena.

2. Geroago txalapartari berriek sortutako eta erabilitako joerak. Bigarren maila honen mamia ia 11 ikasurte hauetan zabaltzen joan da eta gaur egun hasierako baino askoz eta mamitsuago da. Zalantzarik gabe, martxa honetan jarraitzen badugu, hemendik aurrera ere eta urte gutxitan, hau askoz eta zabalago, mamitsuago izango da.

Nahiz eta printzipioz bi ikasurteetan egiteko antolatua egon, ikasle guztiak berdinak ez direnez, ez dago erabat finkatua ez lehen ez eta bigarren mailarako zenbat denbora behar dituen txalaparta ikasteak. Zenbat denbora behar duten horretan garrantzi handikoak dira bai ikasleen gaitasuna eta dedikazioa. Horregatik Hernaniko Txalaparta Eskolan hirugarren ikasurtean klase hartzeko aukera ematen da, eta lehenago esan den bezala, egitarua bukatzerakoan nahi dutenek aipatutako Talde klasean beraien formazioa jarraitzen dute.

Orain ikusiko dugu egitarauen mamia zein den eta txalaparta ikasleek jorratu behar dutena.

5.1. Lehen maila. Txalapartari zaharren joera

Txalaparta ikastera etorritako gehienek ez dute txalaparta zaharra ezagutzen. Txalapartari berriak Ikusi eta entzun dituzten bakarrik eta oinarritzkoa iruditzen zaigu Txalaparta nolako izan den hastea.

Txalaparta eta bere ingurukoaren historia, hau da, Txalapartaren ezagupen integrala.

Idatzietan eta zuzenean jasotako dokumentazioa. Non (eskualdeak eta txalaparta joaldien espazioa), noiz, zeinek, zer motiboengatik, ingurua, giroa, nola eta zer jotzen zen.

Txalapartari zaharrek musika egiteko erabili duten sistemaren oinarria. Bien arteko joko, elkarritzeta eta borroka.

Txalapartari zaharrek zer eta nola jotzen zuten eta nola jotzen duten ezagutzeko zorionez oraindik zuzenean entzuteko aukera dugunez, hauek emandako saioetara joan behar dute eta bideo eta kasetetan hauei egindako grabaketak ikusten eta entzuten dituzte (Musika Eskolan bideo ez dagoenez, bideo grabaketak etxean ikusi behar dituzte).

5.1.1. Jotzen hasteko

Txalapartarien kokapena: Txalapartari zaharrak biak alde berean jartzen ziren, berriak hasieran berdin eta gero Txalaparta osoa eduki nahian edo batua-go egotea, bat bestearen aurrean jarri izan dira.

Eskolako klaseetan beti bi ikasle alde berean eta irakasle aurrean jartzen gara. Modu honetan erosoago egiten zaio irakasleari klasea jarraitzea eta zuzentzea.

Joaldi publikoetan ere, tonalitate konbinaketak kontrolatu nahian oholen kokapena ordenatu eta finkatzen denean, bi txalapartariak Txalaparta berdina izan dezaten, Eskolatik ateratako txalapartariak eta beste askok ere biak alde berean jartzen dira. Beste aldetik, akustikoki Txalaparta simetrikoa denez txalapartaren bi erdialdeak berdinak dira eta hots desberdinekin jolasteko nahikoa da Txalaparta erdiarekin.

Gorputzaren jarrera: Behatz puntatik oinetaraino gorputz osoa libre, gogortu gabe, malgu eta arina, jarritako erritmoa barrutik jarraitzen. Txalapartatik gertu eta ohol guztietara erosoaz iritsiz.

Makilak nola heldu eta mugitu: Eskolan Zuaznabartarren kopiak erabiltzen ditugu. Hauek tamaina aldetik egokiak iruditzen zaizkigu, bai erabilgarritasun eta ematen duten hotsarengatik. Makilak alde batetik bestera eramateko egokia den tokitik heldu eta jotzerakoan bote garbia emanez. Libre bibratu daitezela makilak kontrola galdu gabe ahal den modu libreenean heldu behar dira. Horretarako hobe da behatz puntekin eta ez eskua itxita heltzea.

Kolpe aukerak: ttakuna (bi kolpekoa), tukutuna (hiru kolpekoa), ttan (kolpe batekoa), hutsunea: Hasieran txalapartari zaharrek bezala bietako bat "Ttakuna" (jolea) izaten da eta bestea "Herrena".

Horrela ikaslea "Ttakuna" da eta berak ttakunak egiten ditu, iraunkor eta "tempo" (abiadura) finkoan. Ttakuna jotzerakoan bi kolpeen arteko zabalera jarritako abiaduran egokia behar du izan.

Irakaslea "Herrena" da eta "Ttakuna"ren ttakunen artean sartuko da ttakun, ttan eta hutsuneak erabiliz joko errazak eginez.

Hau, banan bana klaseko beste ikasleekin eta gero ikasleak elkarturik jotzen hasten dira, ttakun, ttan eta hutsunea erabiliz, lauko bueltak osatuz, txalapartari zaharrek gehienetan egiten duten bezala. Herrenarena egiten halako esaldi erritmikoak osatzeko zailtasunak dituztenekin ttakunarekin hasten gara, gero, ttakunak eta ttan eta bukatzeko ttakuna, ttan eta hutsunea. Joko hauetan hasieratik bi makilak erabiliz jotzen ohitu behar dira.

Tukutuna. Kolpe multzo hau txalaparta tradizionalaren joeran sartzen dugu. Nahiz eta ezagutu ditugun txalapartari zaharrek ez erabili, Toberak eta "kirikoketa" jole zaharrek erabiltzen zuten eta Goikoetxeatarrek Ttakunarena egiten dutenari eta ttakun kolpe multzoari "tukutuna" izena ematen dietenez (onomato-

peia honek garbi uzten du garai batean hiru kolpezko multzo hau erabiliko zela),
guk lehen mailako egitarauan sartzen dugu.

Tonu - hots kolore aldaketak: Aurrekoa ikasten denean kolpeak toki ezberdinetan jotzen hasten dira. Horretarako garrantzitsuena makilek bote ematen dutenean toki berrirantz eramaten lantzea da. Hasieran, ohol bakar batean zabalera kolpea ematerakoan modu ezberdinetan tokia aldatuz: makila bat bakarrik, biak batera alde batera edo bi alde ezberdinetara eta ondoren gauza bera baina bi, hiru eta lau oholekin eta toki aldaketa hori aurrera – atzera eginez ohol batetik bestera salto eginez. Bukatzeko, hau guztia bi makilek kontrako mugimenduak eginez, hau da ttakuna jotzerakoan bat eskuin – ezker jotzen badugu hurrengo ezker – eskuin joaz.

“Tempo”/abiadura aldaketak: “Herrena”rena egiten duenak segun eta noiz ematen dituen bere kolpeak abiadura aldaketa behartzen du eta “Ttakuna”rena egiten duenak jarraitu egin behar du martxa berria emanez.

Txalapartari zaharrek aldaketa hauek egiterakoan bakarrik azkartzea egiten badute ere, guk neurri erraza batean maila honetan martxa lasaitzea ere lantzen dugu.

Joko honetan ematen da tentsio erritmiko handiena. Batzuei zailago edo errazago egiten zaie aldaketan agintzea (abiadura aldaketa eskatzea) eta beste jarraitzea (erantzutea). Horregatik denek landu behar dute bai “Ttakuna” izaten eta “Herrena” izaten, hau da, abiadura aldaketan agintzen eta jarraitzen.

Hau beste modura ere lantzen dugu, hau da “Ttakuna” eta Herrena”, biek ttakuna iraunkorra eginez.

Txalaparta tradizionalan gehienetan “Herrena”rena egiten duenak agintzen badu ere (eta beti horrela egiten ez bada ere ematen duenez hori da araua), guk alderantziz egiten ere lantzen dugu.

“Tempo” edo martxa jarraitzeko joerak.- Garbi dago txalapartariak martxa jarraitzeko eta tentsio erritmikoa, bereziki hutsuneak sortzen dituenak, kontrolatzeko erritmo honen barruan sartu egin behar dela eta barruko jarraipenaren gain eta honi lagungarritzat sistema ezberdinak erabiltzen dira.

- Gorputzaren dantza. Gerria edo gorputz osoa mugituz jarritako martxaren erritmoa markatzen.
- Besoen dantza. Aurrekoa bezala baina besoekin bakarrik eta gorputza geldi xamar mantenduz.
- Oinekin lurraren kontra kolpatuz bere pultsazio edo puntua markatzen (joera hau, batera jotzen dutenek daukate bereziki).

Txalapartari zaharrek gehien bat gerri jokoarena erabiltzen dute (1- zenbakia- rekin agertzen dena) eta guk eskolan ere lehenengo hori erabiltzen dugu, baina gorpuz osoa mugituz. Hau iruditzen baitzaigu libreena eta egokiena, bai momentu hartan jotzen dutenerako eta are gehiago geroan pentsatuz, esate baterako

txalaparta bat baino gehiago erabiliz edo txalapartaren muturretan edo beste aldean jotzen hasten direla eta toki aldaketak egin behar denerako.

Hots intentsitatearen (bolumenaren) aldaketak: Honekin hasi aurretik garbi ikusi behar da hots intentsitatearen neurria zuzenean kolpearen kargarekin erlazionaturik dagoela. Hau da, karga gehiago - hots gehiago eta alderantziz. Kargaren aldaketa bi modura lortzen da; indar gehiagorekin edo kolpearen boteari altura gehiago ematen. Guk, orekatuago eta erosoago delakoan bigarren hau erabiltzen dugu. Hurrengo kolpea nolakoa nahi dugu, ba makila bere altura egokia hartzen du.

Aurreko ariketak joera eroso ematen duen hots intentsitatearekin egiten ditugu eta hots aldaketen jokoak urratsez urrats ikasten dira.

- Era progresibo batean hots handitzen hasten gara.
- Joaldi barruan ttan eta ttakun indartsuagoak ematen ditugu.
- Ttakunaren bi kolpeak intentsitate desberdinekin sartzen ditugu efektu eta tentsio erritmiko berriak lortuz.

Txalaparta tradizionalen agertzen ez bada ere, modu berean hots txikiekin (pianoa) prozesu bera lantzen dugu (oso piano lortzeko lehen aipatu dugun moduan bezala altura gutxi ematearen gain, makila makurtzen dugu pixka bat kolpeari karga gehiago kenduz). Bukatzeko bi bideak batera (fuerte eta piano-rantz) lantzen ditugu.

Ariketa hauek egiterakoan abiadura ez aldatzea kontuan hartu behar da, indartsuago jotzerakoan inertziak azkartzeko joera agertzen baita eta era berean pianoago jotzerakoan lasaitzekoa. Horregatik, geroago, abiadura eta hots intentsitate jokoak nahastuz, kontrako ariketak egiten ditugu; martxa lasaitu hots handitzen eta azkartu hots txikitzen.

Maila honen bukaerarako ikasleek menperatu behar dute osagai guzti hauek erabiliz, esaldi eta buelta aldakorrak eta ezberdin asko erabiliz emaitza egokikoak eta joaldi "txukunak" edo itxurosoak osatuz.

5.2. Bigarren maila. Txalapartari berriek sortutako joerak

Ikasturteko klaseetan orden honetan jorratzen ez bada ere, hemen, argiago gera dadin, urte hauetan eman diren berrikuntzak atalez atal azalduko ditugu.

Kolpe aukerak eta hauek nolakoak:

Kolpe bat ematerakoan bi makilekin batera kolpe emanez. Hasteko ttan eta gero abiadura egokian ttakuna eta tukunaren kolpe bat edo denak bikoiztuz. Bi makilek ez badute batera kolpatzen, bi kolpe elkarturik entzuten dira eta gehiago alderatzen badira beste kolpe multzo sortzen dira: ttakun bikoitza / taka-taka (lau kolpetakoa), tukutuna (sei kolpe)...

Kolpeak bere denboretatik kanpo sartu; aurreratuz edo atzeratuz.

Txalaparta jotzeko eran berrikuntza nabarmena izan zen ttakun ttan ttakun oinarritzko hasiera uztearekin sortutakoak. Aldaketa hauek eragin zituzten oinarritzko joera eta erritmo aldaketa garrantzitsuak:

- Lauko ttakuna: Txalapartari zaharrek ttakun ttan ttakunean hasi eta gero eta azkarrago jotzen zutela, ttakun-aren bi kolpeen arteko tarteak eta batek ematen zuen ttakuna-ren "ken" eta bestearen "eta"zen arteko tarteak (bi txalapartarien ttakunen tarteak) gero eta berdinagoa ziren eta joaldien bukaera aldean biek ttakuna jotzen zuten eta bueltaren lau kolpeen tarteak berdinak ziren eta horrela "lauko" erritmo eginez bukatzen zuten.
- Guk eskolan, joera eta erritmo berri bilaketan, joko edo joaldi batzuk lauко horrekin jotzen hastea erabaki genuen. Honek eta hurrengo joera batzuek sortu zituzten polemika eta kontrako jarrera handiak:
- Seiko tukutuna
- Hiruko erritmoa
- Bikoa
- Hamabikoa (3-3/2-2-2, ezpata dantza erritmoa izenarekin ezagutzen dena eta 6/8+3/4 konpasean idazten dena)
- Bosteko, bederatziko eta bestelako oinarritzko erritmoak

Tonu - hots kolore aldaketak: Lehenengo mailan txalapartariak ttakun jotzera-koan berezkoa eskuin ala ezker direlarik kolpeak ematerakoan duten orden joera erabili dute eta hots kolore aldaketak makilak tokiz aldatuz egin dituzte. Orain, hori, makilak tokiz aldatu gabe eta hauek kontrako ordenan emanez egin behar dute. Ariketa honek gorputz oreka hausten du eta ikasle askori kosta egiten zaie behar den tokian sartzea eta zabalera egokia ematea. Ondo ikasi ezker errazago egiten dira hots aldaketak.

Hots nahasketak. Bi toki desberdinetan batera kolpatuz hots berriak lortzen dira bai kolore eta armonia aldetik (kontsonanteak edo disonanteak).

Hots kolore aldaketak: Hots kolore joko eta konbinaketa ezberdinek efektu erritmikoak eragiten dituzte.

"Tempo"/abiadura aldaketak: Azkartze eta lasaitze ariketekin jarraitzen da aldaketak gero eta handiago eginez. Azkarrago eta lasaiago jotzerakoan aldaketak gero eta nabarmenago eginez.

Hau guztia erritmo gero eta malguago lortuz. Esaldi baten barruan ere abiadura aldaketak erabiliz eta eskema horiek errepikatzen.

Hots intentsitatearen aldaketak: Hots kolore aldaketetan lantzen dugun antzera, honetan ere gauza bera egiten dugu "forte" eta "piano"rekin, besoen berezko ordena mantendu eta aldatuz, eta hauen konbinaketek sortzen dituzten efektu erritmikoak.

Erabilpen honetatik sortu zen beste posibilitatea. Ttakun, tukutun edo eta beste multzoetako kolpe batzuek oso "piano" ematerakoan, ia ez dira entzuten

eta hutsune edo eman gabe bezala gelditzen dira, eta horrek kolpeak erabat kentzea eraman gintuen. Aurrerantzean, hori landuko dugu.

5.3. Klase bakoitzaren egitaraua

Ikasturtean zehar ematen diren klaseetan gutxi gora behera eskema bera erabiltzen dugu. Klase hiru zati nagusitan banatzen da:

- 1ena.- Aurreko klasean ikasitakoa edo joera berriaren errebisioa.
- 2ena.- Ariketa edo joko berriak (hau aurrekoa ikasia dagoela ikusiz gero. Bestela, hurrengo klaserako gauza bera uzten da).
- 3ena.- Ikasitako guztia erabiliz joaldi musikalak egitea.

Modu honetan ikasteko erabili behar diren bi aldeak lantzen ditugu: Forma-kuntza teoriko teknikoa eta praktika musikala. Beste aldetik eta horrekin batera hasiera hasieratik interpretazioa eta sormena jorratzen dugu.

6. HERNANIKO ESKOLAN IKASTURTE HAUETAN ARITUTAKO IKASLE KOPURUA

Jarraian ikus daiteke, zutabetan banaturik, parametro edo ezaugarri ezberdinetan sailkaturik, 11 ikasturte hauetan gure Txalaparta Eskolan aritutako ikasleen kopurua. Horrela, ikasle zerrenda bi multzo nagusietan banaturik dago: ikasturtean matrikulatutako ikasle berriak (BERRI) eta ikasle zaharrak (ZAHAR).

Ikasle berrien ezaugarriak sei zutabetan banaturik agertzen dira:

Hirugarren eta laugarren zutabetan ikasle berrietako zenbat diren emakumezkoak (E) eta zenbat gizonezkoak (G).

Bosgarrenean berrien artean zenbat Hernanikoak (Her) eta seigarrenean zenbat Hernanitik kanpokoak (Kan). Kontuan hartzekoa da Hernaniko Musika Eskolan sartzeko bertakoek izan duten lehentasuna eta matrikula ordaintzerakoan izan duten bentaja.

Zazpigarrenean berrien artean zenbat hogeita bat urte arteko gazteak (-21) eta zortzigarrenean zenbat hogeita bat urte baino gehiagokoak (+21).

Bederatzigarren zutabearen zenbat dira ikasle zahar edo aurreko ikasturteetan aritutakoak (ZAHAR). Ikasle hauek bi multzotan banaturik daude: Hamargarren zutabearen egitaraua egiten ari direnak eta teoriak 2. maila egiten ari direnak (2m) eta hamaikagarren zutabearen egitaraua bukatzerakoan aipatutako "Talde klasean" beraien formazioa jarraitzen dutenak (Talde).

Hamabigarren zutabearen ikus dezakegu zenbat izan dira guztira ikasturte horretan aritutako txalaparta ikasleak (GUZ).

IKASTURTEA	BERRI							ZAHAR			GUZ.
	E	G	Her	Kan	-21	+21		2m	Talde		
1985-86	8	2	6	5	3	3	8	-	-	-	8
1986-87	8	-	8	8	-	1	7	4	4	-	12
1987-88	5	1	4	1	4	2	3	5	5	-	10
1988-89	1	-	1	1	-	-	1	9	4	5	10
1989-90	4	3	1	4	-	2	2	4	-	4	8
1990-91	5	4	1	5	-	-	5	9	3	6	14
1991-92	3	1	2	2	1	-	3	9	4	5	12
1992-93	4	1	3	2	2	4	-	7	2	5	11
1993-94	6	5	1	2	4	3	3	6	2	4	12
1994-95	1	-	1	1	-	1	-	13	5	8	14
1995-96	8	2	6	6	2	6	2	12	3	9	20
GUZTIRA	53	19	34	36	17	22	31	(78)	(32)	(46)	(131)

6.1. Hernaniko txalaparta eskolan ikasle hartzeko mugak


Ikasle kopuruari buruz zera esan behar dugu; kopuru honek urtez urte gora ez egiteko arrazoi nagusia Hernaniko Udalak klase emateko ordu kopuruari jarritako muga izan da. Ikasturte guztietan jende asko geratu da itxaro zerrendan gure eskolan sartu nahian. Hernaniko Eskolan sartzeko zailtasun jakin horrek ikasi nahi dutenen artean izena emateko atzera egitea eta ez inguratzea eragin du.

Bestalde, ikasleen jatorriari buruz garbi ikusten da Hernaniko Udalak hernaniarrei emandako lehentasunak eragin handia izan duela. Hamaika ikasturte hauetan Txalaparta Eskolan matrikulatutako berrogeita hamahiru ikasletatik hogeita hamasei hernaniarrak izan dira. Gizonezkoak dira ikasleagoaren gehiengoa, berrogeita hamahiru ikasletatik hogeita hamalau eta adina aldetik hogeita bat urtetik gorakoak dira gehiengoa, berrogeita hamahirutik hogeita hamaika.

7. HERNANIKO TXALAPARTA ESKOLAK BERE ZENTROTIK KANPO

Eskolak jarritako klase ordutegi edo ikasle kopuruen mugak direla eta sartu ezinik gelditzen ziren txalaparta ikasi nahi dutenei eskainitako beste tokietan ikasteko aukerak. Eskola hauetan Hernaniko Eskolan ikasi eta bertatik ateratako irakasleek erakusten dute. Emandako ikastaro hauek ahal den neurrian Hernaniko Txalaparta Eskolaren egitaraua eskaintzan da.

Karlos Torres.- Hernani, Tolosa.
 Juanma Vicente.- Hernani, Zaldibia, Donostia...
 Patxi Monreal.- Billabona
 Iñigo Monreal.- Hernani, Ergobia, Donostia...
 Sergio Lamuedra.- Ergobia, Orereta, Azpeitia, Igara....
 Xabier Amilibia.- Donostiako Lugaritz
 Arantxa Ansa.- Andoain



Iñigo Monreal Hernaniko Eskolatik sortutako Txalaparta irakaslea J. M. Beltran Argiñena Eskolako irakaslearekin (9. Txalaparta Festa. 1995) (arg. H. Txalaparta Eskola).

8. HERNANIKO TXALAPARTA ESKOLAK 11 IKASTURTEETAN EMAN DUEN EMAITZAREN BALANTZEA

Eskola iraunkorra izate horrek bertako eta beste txalaparta eskola eta taldeen esperientzi biltegia izatea ahalbidetu du. Hernaniko Eskola izan da esperientzi hori guztia zabaltzeko tresna.

Hernaniko Eskola izan da Txalaparta irakasleago edo monitore formaziorako ikastaro antolatzaile eta emaila:

- Bizkaia.- Euskal Dantzarien Biltzarra Bilbon antolatutako ikastaroak.
- Nafarroan.- Ortzadar Euskal Folklore Taldeak Iruñean antolatutako ikastaroak.
- Euskal Herri mailan.- Udako Euskal Unibertsitatea.
- Eibarko Txalaparta Irakasle Gaikuntza (habilitación) ikastaroak.

Txalapartarien kopurua eta Txalapartarien maila gora egin dute besteen artean Hernaniko Eskolak egindakoaren eraginez. Hau guztiarekin batera txalapartaren presentzia: Ospakizun Musikalak, folklorikoak, sozialak, politikoak...

Txalaparta musikarako soinu-tresna: bere erabilpen musikala. Musika talde eta konposatzaileen erabilpena: folk, rock, trikitixa, musika berriak, antzerkia, dantza...

Baina Hernaniko Txalaparta Eskolak eragin duen ekintza nagusienetakoa Eskolako Txalaparta Ikasleekin sortutako Txalaparta Festa izan da. Eskolaren bigarren ikasturtean antolatu genuen aurreneko edizioa. Orduan ez genekien nolako harrera edukiko zuen Hernanin eta Txalapartarien artean. Garbi dago asmatu genuela. Hamargarren edizioa ospatzen ari gara eta arlo askotan urte hauetako emaitza oso baikorra izan da.

Txalaparta talde eta txalapartari asko ezagutu ditugu.
Txalaparta Festa zenbat lan berri eta ezberdinak aurkezteko plaza izan da.
Eztabaida eta formaziorako gunea izan da.
Txalaparta munduaren topa-gune nagusia izan da.

Bukatzeko zera esan behar dugu, txalapartak epe motzean izan duela garapen handia edo beste modura esanda, denbora motzean bide luzea egin duela eta hau da kanpoko musikari askoei gehien harritzen zaiena. Baina, beste artean, hori guztia posible izan da bi arrazoiengatik:

Bat, txalaparta ikasi dutenen jarrera langileagatik, lan asko eginez teknika oso maila oneko txalapartariak izan direlako.
Bi, Txalapartari berriek izan duten jarrera sortzaileagatik. Txalapartari zahar-
rrengandik ikasitakoa baztertu gabe eta jotzeko modu horretatik abiatu-
rik joera eta musika berriak sortzeko izan duten jarreragatik.

Eta azkenik eta Hernaniko Txalaparta Eskolari buruz ari garenez garbi esan behar dugu txalaparta munduan eman den garapen horretan Hernaniko Txalaparta Eskolak eragin handia izan duela uste dugula.

Hernani, 1996ko maiatzaren 16a.